

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

HASIERAKO OHARRA. 2022ko 40. astean arnas infekzio akutua (AIA) zaintzeko denboraldi berri bati hasiera eman zitzaion. Datozen asteetan aldaketak eta berritasunak txertatuko dira txosten honetan. Adibidez, hemendik aurrera, AIAREN tasak EAEko Lehen Mailako Arretako kontsulta guztietatik lortutako datuekin kalkulatu dira, eta ez soilik orain arte bezala jagolekupoetatik eratorritakoekin.

46. astea (2022/11/14-2022/11/20)

2022-2023 denboraldia


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 543,00 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (474,65/100.000 aurreko astean).
- Laborategira bidalitako 89 lagin jagoleen % 67,4 baieztatu da, 13 ABS, 12 SARS-Cov-2 eta 4 gripe birus antzeman direlarik. 11 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 14,27 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,17/100.000 aurreko astean)
- Behera egin du EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman gripe-birusaren detekzio kopuruak eta gora ABSrenak.

AIAren jagoletza Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Lehen Mailako Arreta-sarean hautemandako AIAren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 543,00 kasukoa izan da (474,65 kasu/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoa, tasa 496,38/100.000 izan da Araban, 545,83/100.000 Bizkaian eta 559,89/100.000 Gipuzkoan.

AIAren intzidentzia-tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIA tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 3414,67 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 827,16 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, bereziki 15 urtetik beherakoetan.

**AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ESI guztietan. Tasa handiena Goierri-Urola Garaia ESIan izan da, eta txikiena Bidasoa ESIan.


AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE

ESI	Tasa 46. astea	Tasa 45. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Araba ESI	550,59	480,18	1,15 (1,07-1,23)
Arabar Errioxa ESI	641,19	410,36	1,56 (1,09-2,24)
Barakaldo-Sestao ESI	500,70	407,56	1,23 (1,09-1,38)
ESI Barrualde-Galdakao ESI	524,89	463,08	1,13 (1,06-1,22)
OSI Bilbao-Basurto ESI	560,17	527,77	1,06 (1,00-1,13)
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI	608,39	526,78	1,15 (1,05-1,27)
Uribe ESI	492,47	435,15	1,13 (1,04-1,23)
Bidasoa ESI	424,32	352,09	1,21 (1,03-1,41)
Debarrena ESI	586,23	500,30	1,17 (1,02-1,35)
Debagoiena ESI	452,16	435,01	1,04 (0,88-1,23)
Donostialdea ESI	541,27	465,48	1,16 (1,09-1,24)
Goierri-Urola Garaia ESI	647,88	523,09	1,24 (1,10-1,39)
Tolosaldea ESI	613,70	509,86	1,20 (1,04-1,39)

Gripe-sindromearen tasa 19,56 kasukoa izan da 100.000 biztanleko. Lurralde historikoka, tasek pixka bat behera egin dute Bizkaia eta Gipuzkoan eta gora Araban.

Bronkiolitisaren tasa 1163,64 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (2 urtetik beherakoetan). Tasek gora egin dute nabarmen hiru lurralde historikoetan, batez ere Araba eta Gipuzkoan.


**Tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



Zaintza jagolea

Aste honetan, AIArako erreferentziako laborategian 89 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 67,4 baieztatu da, 13 ABS, 12 SARS-Cov-2, 4 gripe birus (guztiak AH3) antzeman direlarik. 11 urtaroko koronabirus, 11 errinobirus, 9 adenobirus eta lagin berean 2 birus identifikatutako 9 koinfekzio ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2022-2023, EAE**



Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuena ABSrena (% 14,6) izan da, azken hiru asteetan gorantza doana. Gripearean positibotasuna lagin jagoleetan % 10aren azpitik kokatu da (% 4,5) denboraldia hasi zenetik lehenengo aldiz eta SARS-CoV-2aren positibotasunak ere behera egin du nabarmen (% 25,8tik % 13,5era). % 10etik gorako positibotasunak erregistratu dira errinobirus (% 12,4) eta adenobirusetan (% 10,1) ere, bi kasuetan aurreko astekoak baino baxuagoak (% 13,6 eta % 16,7, hurrenez hurren). Azkenik, aipatzekoa da urtaroko koronabirusen detekzioan eman den gorakada, % 12,4ko positibotasunarekin (% 1,5 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2022-2023, EAE


	46. astea		45. astea		2022-2023 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	4	4,5	12	18,2	138	27,4
SARS-CoV-2	12	13,5	17	25,8	68	13,5
ABS	13	14,6	7	10,6	37	7,4
Metaneumobirus	6	6,7	0	0	13	2,6
Parainfluenza	1	1,1	4	6,1	28	5,6
Adenobirus	9	10,1	11	16,7	39	7,8
Errinobirus	11	12,4	9	13,6	80	15,9
Urtaroko CoV	11	12,4	1	1,5	17	3,4

AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak AIA diagnostiko-kodea duten eta ospitaleratzea behar duten kasuak dira. AIAL tasa Osakidetzako ospitale-sarean 14,27 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,17/100.000 aurreko astean), 13,73/100.000 emakumeetan eta 14,85/100.000 gizonetan.

AIAL tasa sexuaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 86,06 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 35,31 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 15-44 urteko adin-taldean izan ezik. Igoera nabarmenena 0-4 urteko adin-taldean eman da.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera Osakidetzako ospitale-sarea. 2022-2023, EAE




Zaintza biologiko ez jagolea

EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman gripe-birusaren detekzio kopuruak beherantz jarraitzen du. Aldiz, ABS detekzioek goranzko joera argia dute.

Aste honetan detektatutako 134 gripe-birusetatik, 85 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 44 A(H3), 3 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2022/40 astetik 1621 detekzio erregistratu dira*, 1607 (% 99,1) A motakoak eta 14 (% 0,9) B motakoak. Azpitipatutako A motako 462 birusetatik, 449 (% 97,2) A(H3) eta 13 (% 2,8) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko Influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2022-2023, EAE




* Aste honetan aurreko asteetan gaizki sailkatutako zenbait detekzio kendu dira, honek zenbakiak pixka bat aldatuko dituelarik

COVID-19ren zaintza espezifikoa

60 urte edo gehiagoko populazioan, 46. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 132,88 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (120,88 kasu 100.000 biztanleko aurreko astean), 115,26 gizonetan eta 146,73 emakumeetan (Iturria: ABG).

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, txosten honen egunean, SARS-CoV-2aren aldaeratarako PCR proba espezifikoak lagin positiboan % 27ari egin zaizkie. Guztiak Omikron aldaerakoak izan ziren, eta horietatik % 95 BA.5 azpialdaerakoak, % 4 BA.4/BA.5 eta beste % 1a BA.2.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera (OBIEE), 46. astean SARS-CoV-2rako IAPD positiboa zuten 199 paziente ospitaleratu ziren EAEn (174 aurreko astean), 99 emakume eta 100 gizon. Ospitaleratutako pertsonen % 81 60 urtetik gorakoa zen.



OBIEEtik ateratako datuen arabera, 46. astean COVID-19aren 15 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoren egoitzetako erabiltzaileen artean, hirugarren astez jarraian kasu kopurua jaitsi delarik. Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 12koa izan da (20 zentro aurreko astean).

AIAREN aktibitatearen inguruko informazioa zehatzagoa ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2022ko azaroaren 23an

Zainketa Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza